

UDALBATZARI

Donostian gauzatu ditu ETak atentatu asko eta asko eta bertan gertatu dira, gainera, bestelako indarkeria eta beldurtze ekintzak. Horren ondorioz, donostiar ugarik eta horien familiek min eta sufrimendu egoerak jasan eta jasaten dituzte.

Asasinatutako pertsona guztiek, indarkeria eta ikararazte ekintzek erasandako lagunek herritarren eta erakundeen oroimena, elkartasun aktiboa eta eskerrona merezi dituzte, Eudelek aurkeztu eta Donostiako Udalbatzak 2002.eko maiatzaren 28an onartutako mozioaren arabera.

Aurrekoarekin koherente izateko eta hori gauzatzeko, Bozeramaleen Batzordeak joan den irailaren 24an mozio bat onartu zuen gai izanik Hiriaren Urrezko Domina ematea terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei.

Halaber, bigarren puntu moduan onartu zuen "abuztuan biktimekin izandako bilkuran aztertutakoaren ondorioz, esparru egokietan erabakitzea hirian nolako ekintza publikoak eta erakunde bultza agerpenak egin daitezkeen, biktimen gorazarrea ez ezik, denon gogoeta bidea ere izan dadin bakea lortzeko eta askatasunean denok elkarrekin bizitzeko".

Horiek horrela, Biktimen Udal Foroko Lantaldeak, aipatu Bozeramaleen Batzordearen bilkuran mozioa bultzatu zuten zinegotzi taldeek hurrengo abenduaren 23an ekintza programa bat egiteko asmoa dute, Gabon bezperan, biktimei itzala emateko eta bakea eskatzeko. Esparru horretan bertan aztertzen ari da noiz eta nola eman Urrezko Domina, aipatu mozioan erabakitakoaren arabera.

Azkenik, honako hau onartu zuen: "Administrazio izapideei eta espedienteari ekitea Osoko Bilkurari aurkezteko lehenengo puntuko proposamena, hori guztia Ohore eta Goraipamenen Araudiaren arabera"

Horiek horrela zinegotzi hauek, demokrazia defendatu ez ezik, bizitza, giza eskubideak eta pluralismoa errespetatzeko eskatzen ere dugunez gero, onartutako bi mozioen ondoriozko orientabideez bat, guztiz sinistuta gaude inongo biktimarik edo horren minik ez dutela partiduek tresna moduan

erabili behar eta erabat jabeturik, gainera, bakearekin eta askatasunarekin dugun konpromisoa batez ere bizi konpromisoa dela, Udalbatzari honako hau proposatzen diogu:

Hiriaren Urrezko Domina ematea terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztiei, gorazarrez, elkartasunaren eta eskerronaren erakusgarri.

Donostian, bi mila eta bigarreneko abenduaren hiruan.

ALKATEA,

PSE-EE UDAL TALDEA

EA-EAJ UDAL TALDEA

PP UDAL TALDEA